

ERDI IREKITAKO ATEAK

Etxea ez zegoen isilik, baina hala zirudien. Jendea sartu-irtenean zebilen, katiluak mahai gainean pausatzen ziren, ohi baino astiroago irekitzen ziren ateak. Hala ere, dena geldo zegoen, norbaitek inori ezer esan gabe munduaren bolumena jaistea erabaki izan balu bezala. Pasiluan geratu nintzen segundo batzuez, berokia erantzi gabe, egoera ulertu nahian.

Handik sukaldea ikusten nuen. Ama, auzokide batekin hizketan, arreta handirik jarri gabe baiesten zuen, gehiago nahastea eskatzen ez zuen kafe bat irabiatzen zuen bitartean.

Mahaian erdizka amaitutako platera zegoen, koilara bat ertzean pausatuta, eta inork gogoratzen ez zuen baso bat ur. Dena erdizka zegoen, bizitzak aurrera ez egitea erabaki izan balu bezala.

Giltzak sarrerako altzarian utzi eta korridorera abiatu nintzen astiro. Urrats bakoitza arraroa egiten zitzaidan; ondo baino hobeto ezagutzen nuen etxea, nolabait ezberdina zen une hartan.

Amonaren gela amaieran zegoen. Ateak erdi irekita jarraitzen zuen, beti bezala. Arretaz bultzatu eta burua sartu nuen. Gelak betiko orden bera zuen: ohea ongi egina, ohe-estalkia zimurrik gabe luzatua, betaurrekoak mahaitxoaren gainean, liburu erdi itxi baten ondoan. Dena bere lekuan, baina funtsezkoa faltan.

Ez nintzen logelara erabat sartu. Atearen markoan gelditu nintzen, ez dakit zer, baina zerbaiten zain. Agian mugimendu bat, soinu bat, begi bistako edozein seinale. Baina ez zen ezer gertatu.

Orduan gogoratu nuen amonak beti esaten zuela argia zaindu behar zela. Ez zuen ez lanparetako argiaz ez eguzkiaz hitz egiten, hain zehatza ez zen zerbaitez baizik, ulertu baino gehiago nabaritzen zen zerbaitez. "Dena ixten baduzu, azkenean ez da ezer sartzen", errepikatzen zuen sarritan. Ez nuen inoiz jakin zehazki zer esan nahi zuen, baina amonaren esaldia gustatzen zitzaidan, denborarekin ulertzen diren egia horietako bat zela pentsatuz.

Txikitan, arratsalde asko ematen nituen gela horretan. Leihoak barruko patio batera ematen zuen, interes handirik gabe, baina amonak pixka bat irekita eduki nahi zuen. Baita neguan ere. Aire pixka bat sartzeko adina, gortinak poliki mugitzeko beharrezkoa.

Bere ondoan eseritzen nintzen, amonak eskuz jositako manta bat hanken gainean nuela. Batzuetan hitz egiten genuen, beste batzuetan isilik geratzen ginen, eraikinaren zaratak entzuten: goiko pisuko pausoak, ixten zen ate bat, kolean barre egiten zuen norbait.

Udan, etxea jendez betetzen zen. Lehengusuak korridore luzean zehar ibiltzen ziren korrika, telebistaren aginteaz eztabaidatzen zen, norbaitek hozkailua irekitzen zuen bost minuturo. Eta, hala ere, amona beti zen gai gugan ordena jartzeko, nahikoa zen pare bat hitz esatea gure ahots tonuak jaisteko.

Igandeetako otordu luzeak gogoratzen ditut bereziki. Amona sukaldetik hara eta hona ibiltzen zen, desordenagatik protestaka, baina aldi berean irribarrez. Beti aurkitzen zuen zuzentzeko norbait, hobetzeko xehetasunen bat.

—Horrela ez da ogia mozten —zioen—. Emadazu hori.

Eta berak egiten zuen, inork zalantzan jartzen ez zuen segurtasunarekin.

Urteetan, uste nuen hura ezin zela aldatu.

Gauza batzuek iraun besterik ez zutela egiten.

Baina, denborarekin, gauzak aldatzen hasi ziren, nahiz eta inork ez jakin zehazki noiz hasi zen esaten. Hasieran xehetasun txikiak izan ziren, ia hutsalak. Amona lehenago nekatzen zen, hitz errazak ahazten zituen, lanak erdizka uzten zituen. Norbaitek galdetzen zionean, naturaltasunez erantzuten zuen nekatuta zegoela, eta denek onartzen zuten azalpen hori, galdera gehiegi egin gabe.

Arratsalde batean, leiho aurrean eserita aurkitu nuen.

—Zertan ari zara? —galdetu nion.

Amonak denbora behar izan zuen erantzuteko.

—Ezertan ez.

Handik egun batzuetara, zutitzen saiatu zen, uste baino oreka gutxiago izanik. Keinu txiki bat, ia ikusezina, baina nabaritu zen desoreka.

Diagnostikoa dramatismorik gabe iritsi zen. Garuneko tumorea. Minbizia hitza pieza saihestezin gisa jarri zen elkarriketan. Inork ez zuen ahotsa altxatu. Inork ez zuen gehiegi galdetu.

Handik aurrera, baziren egun onak, non amona berriz ere lehengoa zela zirudien, istorioak kontatzen eta keinuak zuzentzen. Baina beste batzuetan apenas hitz egiten zuen, nekeak hartutako emakumea zen.

Leihoari erreparatzen hasi nintzen hurrengo egunetan.

Gero eta itxiagoa zegoen.

Hasieran pixka bat bakarrik. Gero ia erabat.

Egun batean gelan sartu eta erabat itxita aurkitu nuen arte. Zirrikiturik gabe.

Ez zuen ezer esan.

Baina ulertu nuen amonak zer esan nahi izan zidan.

Azken asteetan, etxea amonaren inguruan berrantolatu da. Ordutegiak aldatu dira, elkarriketak apaldu, bisitak laburragoak izan dira. Bakoitza amonaren momentuko egoerara

moldatu da: batzuek hitz egiten zuten, beste batzuek sartzea saihesten zuten, beste horrenbeste behar baino denbora gehiago geratzen ziren...

Ohe ondoan esertzen hasi nintzen, batzuetan isilik irakurtzen, beste batzuetan elkarri begira. Aldaketa txikiak antzematen ikasi nuen: nola arnasten zuen amonak, nola irekitzen zituen begiak.

Arratsalde batean, etxea bereziki lasai zegoela, ondoan eseri eta eskua hartu nion.

Amonak begiak zabaldu eta ustekabeen begiratu zidan.

—Leihoa —esan zuen.

Zutitu eta, beti bezala, zentimetro batzuk baino ez nituen ireki. Airea astiro sartu zen, gortinak pixka bat mugituz.

Berriro eseri nintzen.

Segundo batzuk igaro ziren.

—Ez itxi erabat —esan zuen amonak—. Inoiz ez.

Baiezkoa egin nuen buruarekin. Ez nuen beste azalpenik behar izan.

Atzoko egunaren lehen minutuekin hil zen amona. Nolabait, gurekin egoteari utzi dio.

Bi egun hauek keinu automatikoen segida bihurtu dira. Jendea iristen da, besarkatzen du, askotan esandako hitzak esaten ditu. Haizeak eramaten dituen hitzak.

Etxea berriro isiltzen hasi da gaur arratsaldean, amonaren falta nabarmenagoa eginez.

Gaur goizean, ezer esan gabe, amonaren gelaraino joan naiz.

Poliki sartu, leihora hurbildu.

Itxita zegoen.

Une batez begiratu dut. Gero, eskua luzatu eta ireki dut.

Ez asko.

Zentimetrotxo batzuk.

Airea berriro sartu da, gortinak pixka bat mugituz. Hantxe geratu naiz, zutik, beste ezer egin gabe. Ez dut berehalako lasaitasunik edo kontsolamendurik sentitu, baina bai bestelako zerbait. Azaltzen ez dakidan zerbait.

Orain ulertzen dut kontua ez dela gauzak dauden bezala mantentzea, ezta ezer aldatu ez dadin saiatzea ere. Kontua da gertatzen dena onartzea eta etapa berriei aurrera egin ahal izateko ateak irekita uztea, baita leihoak ere.

Aurretik zer datorren jakin ez arren, aurrera egiten jarraitzeko.